«9.Ogasuna, Langileria eta Kontuen Batzordeak, 2020ko apirilaren 27an egindako ohiko bileran, aho batez, onartutako irizpen hau

Irizpena, Idiazabalgo Udala Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko administrazio orokorrekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaren hitzarmeneko atxikimendua onartzekoa..

IKUSIRIK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko Administrazio orokorrekin 2017ko martxoaren 24an eta Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaren hitzarmenak.

AINTZAT HARTURIK

Idazkari Kontu hartzailek egindako txostena.

“LEGE TXOSTENA



Idiazabalgo Udala

AURREKARIAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoko Araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarri duten prozedurak elektronikoki izapidetzeko helburua betetzeko, administrazio elektronikoko irtenbide teknologikoak behar dira.

Administrazioek informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko atxikimendu hau sinatu behar da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehengoa. Eskumena:

Lankidetzeta-hitzarmen hau onartzeko eskumena du Udalbatza- Plenoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 g) artikulua xedatutakoaren arabera.

Erabakia hartu beharko da erabateko gehiengoz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 h) artikulua xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena. Araubidea:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren urriaren 1eko 39/2015 Legea
- Sektore Publikoko Araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, bere d) atalean, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzeta arautzen du, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzeta ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzeta hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Azken finean, formulazio hauek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikulua aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. artikulua, administrazioen arteko kooperazio-printzipioa onartzen du; bestalde, Sektore Publikoko Araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 143. artikulua arautzen du Administrazio Publikoen arteko kooperazioa:

“1. Las Administraciones cooperarán al servicio del interés general y podrán acordar de manera voluntaria la forma de ejercer sus respectivas competencias que mejor sirva a este principio.



Idiazabalgo Udala

2. La formalización de relaciones de cooperación requerirá la aceptación expresa de las partes, formulada en acuerdos de órganos de cooperación o en convenios”.

Ilido horretatik, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 100. artikuluan lankidetzaz hitzarmenak arautzen ditu:

“1.– Toki-erakundeek lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko.

2.– Lankidetzaz hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea”

Lankidetzaz hitzarmenak oinarritzen dira administrazio-borondatearen autonomian eta borondate-autonomia hori gauzatu behar da ordenamendu juridikoa, interes publikoa eta administrazio ona errespetatuz. Hitzarmenek ezin dituzte eskumenen titulartasunak aldatu, baina saiatzen dira beste erakunde batzuek eskumen horiek gauzatea eraginkortasun handiagoa lortzeko. Hitzarmenak bi aldeko negozio juridikoak dira eta sortzen ditu «ex voluntate» (hots, hitzarmen hori gabe egongo ez diren) eskubide eta betebeharrak; hori dela-eta, antolakuntzari buruzko negozioak dira zeren eta administrazio-antolakuntzari buruzko teoria orokorrean oinarria eta mugak baituzt Prozedurari dagokionez, ez dago lizitazio beharrik, lehiakortasuna babestu behar ez dituztelako, administrazio-eraginkortasuna baizik.

Hirugarrena. Gaiaren azterketa:

Atxikimendu honen xedea da: Idiazabalgo Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko Administrazio orokorrekarekin 2017ko martxoaren 24an eta Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaz hitzarmenera atxikitzea, bertan adostutako administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbide teknologikoetan zein etorkizunean adosten direnetan parte har dezaten.

Orain eskatzen diren zerbitzuak:

—Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea

—Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak

—Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE)



Idiazabalgo Udala

—Ordainketa-pasabidea

Hitzarmenak lau urteko iraupena du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. (2018/163 Ebazpena, abenduaren 12koa). Epe hori amaitu aurreko edozein unetan hitzarmenaren sinatzaileak aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea.

Hitzarmenaren eta ondorioz atxikimenduaren helburuak honako hauek dira: kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea, balidabide eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztea, onura publikoko jarduerak egiten laguntzea, aurrekontu-eraginkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeak betetzea eta administrazio-bikoiztasunak ezabatzea.

Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan ezartzen du: *«Interesdunak ez daude beharturik administrazioen batek eginak diren dokumentuen kopiak ekartzera, nahiz dokumentu horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak adostasuna adierazi badio dokumentu horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek baimendua delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela. Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.*

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazio-organoaz beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo gelditu daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain».

Publizitatea: Hitzarmenekiko atxikimendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gardentasun atarian (Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b) artikulua arabera) argitaratu beharko da.

Bere eraginak sor ditzan.

Idiazabalen, 2020ko apirilaren 14an

Isabel Fuertes Matxin – Idazkari-Kontu hartzaileak»

Hortaz, Idiazabalgo Udalbatzari luzatzen diot onartzeko honako

IRIZPEN HAU:

Lehenengoa: Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek Estatuko Administrazio Orokorrekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu duen lankidetzaren hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa onartzea.

Bigarrena. Alkate udalburuari ahalordea ematea Idiazabalgo Udalaren atxikimendua sinatzeko.

Hirugarrena. Prozesu hau aurrera eramateko langileak izendatzea:

Nekane Mujika Sueskun A.

Isabel Fuertes Matxin A.

Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari erabakiaren ziurtagiria luzatzea.



Idiazabalgo Udala

Bosgarrena. Gardentasun atarian argitaratzea

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn, Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondojn. eta Ioritz Imaz Baztarrika jn.

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez»

Bozketa izan ondoren, honako hau izan da emaitza:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunete Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn. eta Iker Zabaleta Urcelai jn.

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez

Hortaz, batzarkideek aho batez onartu dute irizpen hori

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA

Iñaki Alberdi Iparragirre jaunak, alkate gisa eta Idiazabalgo Udalaren ordezkartzan, hauxe

ADIERAZTEN DUT:

Idiazabalgo Osoko Bilkurak 2020ko apirilaren 30ean egindako ohiko bileran erabaki du, aho batez, administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarr emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzahitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Idiazabalgo Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenean arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DUT:

Idiazabalgo Udalaren atxikimendua, toki-erakunde horren ordezkari naizenez, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarr emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:



Idiazabalgo Udala

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:

- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea
Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak
Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica
- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE)
Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE)
- Ordainketa-pasabidea.
Pasarela de Pagos

Sin.: Idiazabalgo Alkate-udalburuak
Iñaki Alberdi Iparragirre

(Sinadura digitala)

10. Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantzen aldaketa hasieraz onartzea

Alkateak azaldu ogasun batzordetik pasatu dela gaia eta ados zeudela guztiak. Gaia bozketan jarri du.

Bozketa izan ondoren, honako hau izan da emaitza:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunate Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn. eta Iker Zabaleta Urcelai jn.

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez

Hortaz, batzarkideek aho batez onartu dute irizpen hori

«Ogasuna, Langileria eta Kontuen Batzordeak, 2020ko apirilaren 27an egindako ohiko bileran, aho batez, onartu du honako irizpen hau.	«La Comisión de Hacienda, Personal y Cuentas, en sesión ordinaria celebrada el 27 de abril de 2020 ha aprobado por unanimidad el siguiente dictamen
10.Irizpena, Zerga Ordenantza eta Prezio Publikoen Ordenantzaren hainbat tarifa aldatzea onartzekoa	10.Dictamen, para la modificación de tarifas de las Ordenanzas fiscales y de precios públicos
I. Eskumena”	I. Competencia.
Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantza onartzeko eta aldatzeko eskumena du Osoko Bilkurak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua «Hauek dira, nolahi ere, osoko bilkurari eta	La competencia para la aprobación y modificación de las Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos corresponde al Ayuntamiento Pleno de conformidad con lo previsto en el artículo 22.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril,



Idiazabalgo Udala

kontzeju irekiaren araubidean auzo-batzarrari dagozkien eskumenak: d) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea».	Reguladora de las Bases del Régimen Local: «Corresponden, en todo caso, al Pleno municipal en los Ayuntamientos, y a la Asamblea vecinal en el régimen de Concejo Abierto, las siguientes atribuciones: d) La aprobación del reglamento orgánico y de las ordenanzas».
II.Araubidea	II. Régimen jurídico
Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea	Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local
Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua: 15.-18. Eta 24.artikuluak	Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa: artículos 15-18 y 24
Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.	Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: artículos 129, 131 y 133.4
Idiazabalgo udalerriko Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantzen Testu Bategina (GAOn 2019ko abenduaren 30ean argitaratutakoak, 248.zk.ian).	Texto Refundido de las Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos, publicadas en el BOG de 30 de diciembre de 2019, nº 248).
III. Examen del asunto	III. Gaiaren azterketa
Kultur, Euskara, Hezkuntza eta Kirol teknikariak zein turismo eta Garapen ekonomikoaren teknikariak aldeko txostena eman dute	La Técnica de Cultura, Euskara, Educación y Deportes y la Técnica de Turismo y Desarrollo económico han emitido informe favorable técnico.
Zerbitzua emategatik edo jarduera egitegatik ordaindu beharreko tasen zein prezio publikoen zenbatekoa ez da handiagoa, batera hartuta, zerbitzu edo jarduerak benetan duen edo izan dezakeen kostua edo, halakoaren ezean, zerbitzuaren prestazioaren balioa baino.	El importe de las tasas y de los precios públicos por la prestación de los servicios o por la realización de las actividades no exceden, en su conjunto, del coste real o previsible del servicio o actividad de que se trate o, en su defecto, del valor de la prestación recibida.
Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.artikuluak honako hau xedatzen du:	El artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa establece:
«1. Udal Korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributu kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta, baita ere, dagozkien Ordenantza Fiskalen onespren eta aldarapenak Entitatearen iragarki taulan jarriko dira agerian hogeitamar egunetan zehar, berauetan interesgunek espedientea aztertu ahal izango dutelarik eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.	«1. Los acuerdos provisionales adoptados por las Corporaciones Municipales para el establecimiento, supresión y ordenación de sus tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las aprobaciones y modificaciones de las correspondientes Ordenanzas Fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la Entidad durante treinta días, como mínimo, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.
2. Udalerriek, dena den, azalpen iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dituzte. Era berean, 10.000 pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten Entitateek Gipuzkoako Lurralde Historikoan	2. Los Municipios publicarán, en todo caso, los anuncios de exposición en el BOLETÍN OFICIAL de Guipúzcoa. Asimismo aquellas Entidades con población de derecho superior a 10.000 habitantes deberán publicarlos, en un diario de



Idiazabalgo Udala

hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu beharko dituzte.	los de mayor difusión del Territorio Histórico de Guipúzcoa.
3. Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da	3. Finalizado el período de exposición pública, las Corporaciones Municipales adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la Ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.
4. Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratzen hori burutua izan ez dadin artean	4. En todo caso, los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las Ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el «Boletín Oficial de Guipúzcoa», sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.
5. Hogei mila pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuen Ordenantza Fiskal erregulatuaren testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilabetekoaren barruan. Dena den, Udalek, argitaratutako Ordenantza Fiskalen kopiak luzatu beharko dizkiete eskatzen dituztenei».	5. Las Entidades que tengan una población de derecho superior a 2.000 habitantes, editarán el texto íntegro de las Ordenanzas Fiscales reguladoras de sus tributos dentro del primer cuatrimestre del ejercicio económico correspondiente. En todo caso, los Municipios habrán de expedir copias de las Ordenanzas Fiscales publicadas a quienes las demanden».
IRIZPENA	DICTAMEN
LEHENENGOA. Behin behineko onarpena ematea Zerga- eta Prezio Publikoen Ordenantzen honako tarifa hauen aldaketari (1.eranskina)	PRIMERO. Aprobar de forma provisional la modificación de las siguientes tarifas de las Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos (anexo 1)
BIGARRENA. Espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea 30 lan egunez, interesdunek alegazioak zein iradokizunak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru-Arauko 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz.	SEGUNDO. Someter el expediente a exposición pública durante el plazo de treinta días hábiles a fin de que las personas interesadas puedan presentar alegaciones y sugerencias de conformidad con lo previsto en el artículo 16 de la de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa
a) <i>Agerian dagoen lekua:</i> Idazkaritza Kontu hartzailetza	a) <i>Lugar donde se hallan de manifiesto:</i> En Secretaría-Intervención
b) <i>Aztertze eta bere kasuan iradokizunak zein ohararazpenak agertzeko epea:</i> 30 lan egun, iragarki hau Aldizkari Ofizialean agertzen denetik, eta 9:00etatik 14:00etara.	b) <i>Plazo para examinarlos y en su caso para formular las sugerencias o alegaciones:</i> 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil a la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de 9:00 a 14:00.
c) <i>Erreklamazioak jartzeko aukera dutenak:</i>	c) <i>Legitimados/as para reclamar:</i> Los/as



Idiazabalgo Udala

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunak.	interesados/as indicados en el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.
d) <i>Aurkezteko tokia:</i> Udalaren Sarrera-Erregistro Orokorrean eta Herri Administrazioetako Administrazioako Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan.	d) <i>Lugar de presentación:</i> En el Registro Electrónico General del Ayuntamiento y en los lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
e) <i>Erreklamazioa jarriko dion organoa:</i> Udalbatza	e) <i>Órgano ante el que se recurre:</i> Ayuntamiento-Pleno.
Jendaurreko erakustaldi honen epea iraganez gero, inolako erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ezean, behin-betikoz onartutzat hartuko da erabaki hori, beste inolako erabaki berri baten beharrik gabe	Una vez transcurrido el plazo legal de información pública sin que se haya presentado alegación, reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivo el acuerdo adoptado, sin necesidad de nuevo acuerdo

1.eranskina		Anexo 1
6.10.3. Zelaako kiroldegia		6.10.3. Polideportivo Zelaako
a.- Kantxa erabiltzeko erreserba:		a.Reserva de uso de cancha
Ordubeteko saioa	50	Abono trimestral. Una hora a la seman
Hiru hilabeteko abonoa. Astean ordu bat	300	Abono trimestral. Una hora a la semana
Urteko abonoa. Astean ordu bat	900	Abono anual. Una hora a la semana
9.4. Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua		9.4. Precio público por servicios de enseñanzas especiales.Servicios de Infancia y Adolescencia - psz (Servicio de Fomento de la Participación).
3-11 urte. Pazkoa astean (egunean 3 ordu), astebete batez	20,00 €	3-11 años. Semana de Pascua (2 horas al día), una semana
9.9. Rokodromoa		9.9. Rokodromoa
A. Urte osoko abonamendua	40,00	A. Bono anual
B. Eguneko sarrera /3 ordu/saio)	5,00	B. Entrada de día (3 horas/sesión)
7.1. Administrazio zerbitzu orokorrak		7.1 Servicios administrativos generales
7.1.1 Kopiagailua		7.1.1 Reprografía
A4 formatuan, zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko	0,25	Por c/copia en A4 en blanco y negro
9.3. Gazta interpretazio zentroaren bisiten prezio publikoa		9.3 Precio público de las visitas del centro de día
Bisitak:		Visitas:
b) Interpretazio zentrora bisita gazta dastaketarekin:	3,40	b) Visita al centro de interpretación con degustación de queso
Arrunta	2,95	Ordinaria
Hobaritua		Bonificada

1)

6.10.3. Zelaako kiroldegia		6.10.3. Polideportivo Zelaako
----------------------------	--	-------------------------------



Idiazabalgo Udala

a.- Kantxa erabiltzeko erreserba:		a.Reserva de uso de cancha
Ordubeteko saioa	50	Abono trimestral. Una hora a la semana
Hiru hilabeteko abonoa. Astean ordu bat	300	Abono trimestral. Una hora a la semana
Urteko abonoa. Astean ordu bat	900	Abono anual. Una hora a la semana

Orain arte:

a.- Kantxa erabiltzeko erreserba:		a. Reserva de uso de cancha:
Ordubeteko saioa	50 €	Una hora/sesión
5 ordu/saio	175 €	Cinco horas/sesiones
10 ordu/saio	300 €	Diez horas/sesiones

Proposamen berria: Kobratzeko arazoak daude, 5 saio kontatzeko epeak, aste bat joaten ez badira nola jakin,... Bi talde joaten dira urte guztian zehar eta modu honetara ulergarriagoa egiten da. 2019ko tarifa jarraitu da, baino ez da horrela kobratu. Erabiltzaileek ordaintzen zuten (nahi zutena)

2)

9.4. Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua		9.4. Precio público por servicios de enseñanzas especiales.Servicios de Infancia y Adolescencia - psz (Servicio de Fomento de la Participación).
3-11 urte. Pazkoa astean (egunean 3 ordu), astebete batez	20,00 €	3-11 años. Semana de Pascua (2 horas al día), una semana

Orain arte:

3-11 urte. Pazkoa astean (egunean 2 ordu), astebete batez	15,00 €	3-11 años. Semana de Pascua (2 horas al día), una semana
---	---------	--

Arrazoa: 3 orduz ematen dira

3)

9.9. Rokodromoa		9.9. Rokodromoa
A. Urte osoko abonamendua	40,00	A. Bono anual
B. Eguneko sarrera /3 ordu/saio)	5,00	B. Entrada de día (3 horas/sesión)

Orain arte:

Tarifak:

Tarifas:

A. Urte osoko abonamendua:	75,00 €	A. Bono anual:
----------------------------	---------	----------------



Idiazabalgo Udala

B. Sei hilabeteko abonamendua:	50,00 €	B. Bono semestral
C. Eguneko sarrera /3 ordu/saio)	5,00 €	C. Entrada de día (3 horas/sesión)

Proposamen berria: Ez da inor apuntatu. Oso garestia da. Erreferentzi modura Lazkao hartu da eta han doan da.

4)

7.1. Administrazio zerbitzu orokorrak		7.1 Servicios administrativos generales
7.1.1 Kopiagailua		7.1.1 Reprografía
A4 formatuan, zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko	0,25	Por c/copia en A4 en blanco y negro

Orain arte

7.1. Administrazio zerbitzu orokorrak		7.1 Servicios administrativos generales
7.1.1 Kopiagailua		7.1.1 Reprografía
A4 formatuan, zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko (10 kopia baino gehiago egiten direnean)	0,25	Por c/copia en A4 en blanco y negro: (si se hacen más de 10)

Proposatzen da: Inoiz ez da kobratu horrela

5)

9.3. Gazta interpretazio zentroaren bisiten prezio publikoa		9.3 Precio público de las visitas del centro de día
Bisitak:		Visitas:
b) Interpretazio zentrorra bisita gazta dastaketarekin:	3,40	b) Visita al centro de interpretación con degustación de queso
Arrunta	2,95	Ordinaria
Hobaritua		Bonificada

Orain arte:

Bisitak:		Visitas:
b) Interpretazio zentrorra bisita gazta dastaketarekin:		b) Visita al centro de interpretación con degustación de queso:
Arrunta	340 €	Ordinaria
Hobaritua	2,95 €	Bonificada

Proposatzen da zuzentzea.



Idiazabalgo Udala

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn, Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondojn. eta Ioritz Imaz Baztarrika jn.

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez»

Bozketa izan ondoren, honako hau izan da emaitza:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunete Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn. eta Iker Zabaleta Urcelai jn.

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez

Hortaz, batzarkideek aho batez onartu dute irizpen hori.

11. Berankortasunaren txostenaren berri ematea

Alkateak adierazi du gaia hau ere batzordetik pasatu dela.

Idazkari kontu hartzaileak azaldu du ordaintzeko batez besteko epea 6,75 egunekoa izan dela; legezko epearen barruan 503 (427.448,18) eta legezko epeetik kanpo 2 (164,56)

1.2. Epearen arabera

Egun kopurua	Egindako ordainketak			
	Faktura kopurua	%	Zenbateko osoa	%
30 egun edo gutxiago	509	99,61	428.732,67	99,96
31etik 40 egunetara	2	0,39	164,56	0,04
41etik 50 egunetara	0	0,00	0,00	0,00
51tik 60 egunetara	0	0,00	0,00	0,00
60 egun baino gehiago	0	0,00	0,00	0,00
Guztira	511	100,00	428.897,23	100,00

3.1. Erregistroan idatzi zirenetik hiru hilabetetik gora daramatenak

Hiru hilabete ondoren obligazioa onartu gabe duten fakturak eta ordainagiriak	Epea (egunak batez beste)	Kopurua	Zenbateko osoa
Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	325,03	14	5.386,06
Inbertsio errealak		0	0,00
Aurrekontura aplikatzeko daudenak	157,83	8	19.737,79
Guztira	193,68	22	25.123,85

12. Alkatetza Dekretuen berri ematea

Idazkari kontu hartzaileak adierazi du zerrenda posta elektronikoz jaso dutela.

Ioritz Imaz zinegotziak adierazi du zenbaki batzuk dekreturik gabe zeudela eta zergatia jakin nahi duela.



Idiazabalgo Udala

Idazkariak adierazi du gaia aztertu behar duela, hainbat langilek dekretuak prestatzen dituztela. Hori zuzendu beharrekoa dela.

loritz Imaz zinegotziak eskau ditu hainbat dekretu posta elektronikoz jasotzea.

Alkateak baimendu du.

13. Galdera eta erreguak

Ez dira izan.

Alkatearen oniritziarekin, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko zazpiak eta bostean eta agiri hau jaso da.

O.I
ALKATEAK
Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin